



OIARTZUNGO
UDALA

OIARTZUN

2023-2027



Herritarrek, eragileek, elkarteek, agenteek eta Udalak osatzen dugu Oiartzungo komunitatea. Guztion lehentasunak, interesak, ekintzak, iritziak eta ideiak funtsezkoak dira gure ekosistema propio honen garapenerako.

Oiartzuar guztien bizitza hobetu nahi dugu. Herri berdinzalea, bizia, jasangarria eta euskalduna nahi dugu. Eta horretarako datozen lau urteetan lortu nahi ditugun helburuak eta martxan jarriko ditugun lan-lerroak definitu ditugu. Elkarlanean egingo dugu; oiartzuarrekin eta herriko eragile sozial eta agente ekonomikoekin eskuz esku arituz. Herri bezala ditugun erronkei erantzuteko ezinbestekoa izango baita guztion indarrak batu eta norabide berean lan egitea.

*Joana Mendiburu Garaiar
Oiartzungo alkatea*



HERRITARRAK

1. Bizitza duinak, komunitate bizi eta anitzak sustatzea Oiartzun berdinzalean

- ▶ Herritarren ongizaterako zerbitzuak zabaldu eta ezagutarazi
- ▶ Herritarren ongizaterako saila berrantolatu
- ▶ Zaintza zerbitzu publiko-komunitarioa indartu, herriko eragileekin elkarlanean
- ▶ Adin txikikoen babesgabetasun egoerak prebenitu
- ▶ Bazterketa eta larrialdi egoerak prebenitu eta erantzun
- ▶ 2022-2025 berdintasun plana gauzatu, ebaluatu eta berria diseinatu
- ▶ 2025-2029 berdintasun-plan berria diseinatu eta gauzatzeko hasi
- ▶ Gazte eragileekin harremana sustatu, herriko ekimenekin identifikatzeko
- ▶ Herriko baloreen transmisioan eragin herri hezitzailea sortzeko

2. Herriko kulturgintza eta ondarearen aro berria garatzea, euskara ardatz

- ▶ Udalaren kultur politika eta ekintza-plana definitu herriko eragileekin
- ▶ Liburutegia berrantolatu eta irakurzaletasuna sustatu herriko eragileekin
- ▶ Udalaren eskumeneko lokalak kultur jardueretara bideratu
- ▶ Euskal kulturgintzan erreferentzialtasuna lortu
- ▶ Herriko ondarea jaso eta zabaldu
- ▶ Euskara sustatzeko neurriak hartu
- ▶ Herriko irratia funtzioak zehaztu eta eskaintza egituratu
- ▶ Herriko festak baloratu eta zaindu

3. Herritarrak udalarekin eskuz esku lanean aritzea, komunikazio zuzen eta gardenean

- ▶ Parte hartzea birformulatu
- ▶ Udalaren jardunaren gardentasuna bermatu
- ▶ Udalaren komunikazio-plana berrikusi eta ekintza-plan berria gauzatu
- ▶ Udal marka sortu
- ▶ Udal administrazio elektronikoan pausoak eman

4. Herritarren kohesiorako harreman sareak ehuntzea

- ▶ Herritarren bizi ohitura osasuntsuak sustatu
- ▶ Ikuspegi feministatik egindako kirol arloko diagnostikoko proposamenak kirol saileko ekintza planean sartu
- ▶ Kulturartekotasuna baliatu Oiartzun harrera herria bihurtzeko
- ▶ Balio eta ondareen transmisioa bermatzeko belaunaldiak gurutzatzeko ekintza plana egin
- ▶ Bitartekaritza gunea sortu bizikidetzaz arazoak lantzeko
- ▶ Auzotarren arteko harremanak sendotzeko ekintza plana egin
- ▶ Herriko eragileekin harreman iraunkorrak eta eraginkorrak landu

LURRALDEA



1. Energia eta elikadura burujabetza hauspotzea

- ▶ Oiartzun energia burujabetzarantz eramango duen plan jasangarria diseinatu, herri eragileekin elkarlanean
- ▶ Udalaren energia plana idatzi
- ▶ Oiartzun elikadura burujabetzarantz eramango duen plan jasangarria diseinatu, herri eragileekin elkarlanean
- ▶ Udalean dugun mugikortasun planari, ekintza plana egin

2. Herriko azpiegiturak hobetzea eta egokitzea

- ▶ Azpiegitura berriak sortu eta daudenak berrikusi herritarren beharretarako: kirol azpiegiturak, kultura azpiegiturak, auzoetako beharrak...
- ▶ Etxebizitza politika aztertu. Dauden proposamenak herritarrekin partekatu eta ekarpen berritzaileak proposatu
- ▶ Lorategi eta parkeak mantendu eta birpentsatu
- ▶ Hirigintza irisgarriago eta inklusiboagorantz pausoak eman
- ▶ Udal eraikinetako komun eta aldagelen inguruko hausnarketa egin

3. Oiartzun herri jasangarria eta ingurumenarekiko abegikorra izatea

- ▶ Hondakinen gaikako bilketa aztertu eta hobekuntza plana egin
- ▶ Mendi eta basoen kudeaketa jasangarria eta aprobetxamenduzkoa egin diputazioarekin eta herritarrekin elkarlanean

- ▶ Erreka eta ibaien epe luzerako kudeaketa-plana egin
- ▶ Zaratak gutxitzeko azterketa egin
- ▶ Argitasun kutsadura aztertu

4. Herriko ekonomia indartzea

- ▶ Ekonomia sozialeko enpresentzat herri erreferentea izateko pausoak eman
- ▶ Herriko industria guneak zaindu
- ▶ Herriko komertzioa sustatzeko plana egin

ANTOLAKUNTZA



1. Udaleko zuzeneko arreta-zerbitzua eroso, irisgarria eta gertukoa bihurtzea

- ▶ Herritarren arreta gunea sortu eta herritarrei berri eman
- ▶ Arreta gunearen nolakotasuna eta langileen antolaketa definitu eta gauzatu
- ▶ Administrazio elektronikoa pausoak eman, arrakala digitala kontuan izanda
- ▶ Auzoetarako gertutasuna aztertu

2. Udaleko diru-kontuen orekari eustea

- ▶ Dirulaguntzen plan estrategikoa berritu eta jarraipena egin
- ▶ Udalaren jabetzakoak diren ondasunen inbentarioa eguneratu
- ▶ Ordenantza fiskalak berrikusi errentaren araberako presio fiskala jartzeko

3. Udaleko antolaketa berritu eta langileen egoera egonkortzea

- ▶ Udalaren barne funtzionamendua berrantolatu
- ▶ Udaleko barne berdintasun plana idatzi
- ▶ Udal langileen lanpostuen balorazioa egin
- ▶ Udal langileak egonkortu eta lan-baldintzak berrikusi
- ▶ Barne komunikazioa hobetu komunikazio-plana idatziz
- ▶ Udaleko langileen formakuntza-plana idatzi
- ▶ Udalaren ezagutzaren kudeaketa-plana, ezagutza ez galtzeko eta transferitzeko metodología ezartzeko